

PRENTSA-OHARRA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA LEHENA IZANGO DA AUTOMOBILGINTZARI APLIKATUTAKO ZIBERSEGURTASUNA IRAKASTEN

CYBENTIA taldea eta Mondragon Unibertsitatea elkarlanean ari dira automobilgintzari aplikatutako zibersegurtasunaren arloan prestakuntza eta ikerketa bultzatzeko.

Hitzarmen horri esker, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ikasleek eta irakasleek hobetu egingo dituzte automobilgintzaren sektoreko zibersegurtasunari buruzko ezagutzak eta gaitasunak.

Besteak beste, ikerketa proiektuak eta kontzientziazio-estrategiak sortzeko lankidetzaren aurrekusturik du hitzarmenak, eta, horren ondorioz, unibertsitatea aitzindaria eta erreferentea izango da zibersegurtasunaren eta mugikortasunaren arloan.

Arrasate, 2023ko martxoa

[CYBENTIA taldea](#) —teknologia eta konektatutako ibilgailuei eta mugikortasun adimendunari aplikatutako zibersegurtasunaren espezializatutako aholkularitza taldea— eta [Mondragon Unibertsitateko](#) —Euskadiko unibertsitate kooperatiboa, enpresa-errealitatearekin lotura estua duena— Goi Eskola Politeknikoa elkarlanean ari dira unibertsitateko ikasleek eta irakasleek automobilgintzaren sektorean zibersegurtasunaren arloan dituzten ezagutzak eta gaitasunak hobetzeko. **Hitzarmenak berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak lankidetzan egitea ere jasotzen du.** Martxoaren 10ean sinatu dute, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoaren instalazioetan.

Auditorietan, I+G+b-an, trebakuntzan, kontzientziazioan, automobilgintzarako jardueretan ([CYBENTIA taldearen](#) sektorea) eta beste zenbait arlotan **zibersegurtasun-produktuak eta zerbitzuak aztertzeko bi erakunde horiek duten interesetik sortu da elkarlana**, betiere ikasleen eta irakasleen jakintza eta gaitasunak hobetzea helburu dela. Ildo beretik, zibersegurtasunari buruzko ikerketa- eta transferentzia-proiektuak garatu nahi dituzte —unibertsitateak ikerketa-talde bat du gorantz ari den eremu horretan—, baita hedapen-, komunikazio- eta kontzientziazio-ekintzetan elkarri lagundu ere.

Lankidetzaren estrategiko hau bi erakundeek automobilgintzaren eta mugikortasunaren sektoreari aplikatutako zibersegurtasuneko produktuak eta zerbitzuak aztertzeko duten interesetik sortu da –

esparru horretan CYBENTIA Taldea liderra izanik –. Unibertsitateko ikasle eta langileen ezagutza eta gaitasunak hobetzeko helburuarekin I+G+B, prestakuntza, konzientziatzea eta ekitaldiak bideratuko dira. Ildo beretik, zibersegurtasunari buruzko ikerketa eta transferentzia proiektuak garatu nahi dira unibertsitateak gai horien inguruko ikerketa talde bat du eta.

Akordio honen lehen pausoak bi ikastaroren eskaintzarekin emango dira: UNECE/R155 Ibilgailuentzako Zibersegurtasun Araudiari buruzko ikastaroa eta Ibilgailuen Flotetako Zibersegurtasun ikastaroa hain zuzen ere. Ikastaro horiek EUROCYBCAREkin (ibilgailuen zibersegurtasun maila ebaluatzen liderra den enpresa teknologikoa) eta HackerCarreko CyberQ-Testers taldearekin lankidetzan egingo dira.

Javier López Tazónek, CYBENTIA Taldeko Zuzendaritza Nagusiko zuzendariondokoak, honela dio: «Akordio honi esker automobilgintzaren arloko prestakuntza osoagoa lortzea espero dugu, orain arte ahaztuta zegoen ikuspegia emanez: zibersegurtasuna mugikortasunean. Ez da etorkizunean heldu beharreko zerbait; gainditu gabeko irakasgai bat da dagoeneko. Eta, aldi berean, espero dugu akordio hau lehen urratsa baino ez izatea gure arteko lankidetzan».

Carlos García Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko zuzendariaren iritziz: «Enpresen eta unibertsitatearen arteko epe luzeko lankidetzak-akordioen alde egiten dugu bi arrazoigatik. Batetik, gure ezagutza enpresei transferitzeko eta beraien merkatuko posizioa lehiakorragoa izateko. Bestetik, ikasleak ahalik eta prestakuntzarik handienarekin sar daitezten lan-merkatuan, eta gertutik ezagutu dezaten industriaren errealitatea. Alde horretatik, CYBENTIA taldearekiko lankidetzak beste aurrerapauso bat da zibersegurtasunean interesa duten ikasleek aplikazio eta proiektu errealekin lan egin dezaten bermatzeko, eta hori oso baliagarria izango da lan-munduan sartzen direnerako».

ZER JAKIN BEHAR DUZU CYBENTIA TALDEARI BURUZ?

CYBENTIA taldea ikerketako, kontzientziatze eta komunikazio estrategikoko aholkularitza-enpresa bat da, konektatutako ibilgailuei eta mugikortasun adimendunari aplikatutako zibersegurtasunean espezializatua. [CYBENTIA taldea](#) 2018an sortu zen, eta Gasteizen (Teknologia Parkean) eta Madrilen (Parke Zientifikoa) ditu egoitzak. Lau arlo jorratzen ditu: [Kontzientziatzea eta Prestakuntza](#) —HackerCar prestakuntza- eta ekitaldi-plataformaren bidez—, [Aholkularitza estrategikoa](#), [Ziurtapena](#) eta [Ziberlategia](#). 2019an, [HackerCar.com](#) sortu zuen, mugikortasunean eta zibersegurtasunean kontzientziatzeko lehen plataforma. 2020an, automobilgintzari/mugikortasunari aplikatutako zibersegurtasunean espezializatutako lehen prestakuntza garatu zuen. 2021ean, «Mugikortasun zibersegurua duen hiria» ziurtagiria sortu zuen.

CYBENTIA taldeak Gasteizen —Teknologia Parkean— eta Madrilen —Zientzia Parkean— ditu egoitzak, eta BCSCren Euskadiko Zibersegurtasunaren Liburu Zurian dago. INCIBEk prestakuntza-enpresa gisa gomendatzen du. MLC-lts-Euskadi Mugikortasun eta Logistika Klusterreko kide ere bada CYBENTIA, eta NBERen zerbitzu-hornitzaile.

ZER JAKIN BEHAR DUZU MONDRAGON UNIBERTSITATEARI BURUZ?

[Mondragon Unibertsitatea](#) irabazi-asmorik gabeko unibertsitate kooperatiboa da, MONDRAGON korporazioaren barruan dagoena. Mondragon lehen euskal enpresa-taldea da, Espainiako hamargarrena eta munduko kooperatiba-talderik handiena (266 enpresa eta 70.000 langile inguru ditu). Hauek dira Mondragon Unibertsitatearen ezaugarri nagusiak: berrikuntzaren aldeko apustu irmoa, eraldaketa pertsonalarekiko eta sozialarekiko konpromisoa, hezkuntza-programen kalitatea eta orientazio praktikoa, lan-munduarekin duen harreman estuaren ondorio gisa.

Pentsarentzako kontaktua

Komunikazio Departamentua // CYBENTIA taldea

Tel.: 678 400 591

Helbide elektronikoa: comunicacion@cybentia.com

Webgunea: www.cybentia.com

Xusane de Miguel Ortiz // Mondragon Unibertsitatea

Tel.: 629 75 33 36

Helbide elektronikoa: xusane@vkcomunicacion.com

Webgunea: www.mondragon.edu/eu/hasiera